

Kronika

URUMEA BAILARAKO EGUNKARIA

2023-01-11, Asteazkena

8.074 zt.

www.kronika.eus

TSKIKOM

EGURALDIA

GAUR Goizean goiz horte hotz bat iritsiko da, haizeak ipar mendebaldeko aldetik daude, eta giroa motela eta euritsu izango da. Frontea adierazten du eta arrotzidetsu lanotza ez da hain trinkoa izango, baina tarteka zaparradak botako ditu. **Min.8° / Max.15°**

BIHAR Lurrik eta ostenak agertuko dira eta eguraldi lasia izango da. Egun guztian erdi mailako linoak eta go linoak ostalariak tartekatuko dira. Temperatura minimoak jatu egingo dira; maximoak, aldiz, orotarik agertuko dira. **Min.5° / Max.19°**

Gaur irekiko dute 2023ko txotx denboraldia, Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak

Txotx irekiera streaming bidez emitituko dute, Sagardoaren Lurraldearen Youtubeko kanalean: <https://labur.eus/S8jbp>.


ASTIGARRAGA SAGARDOA

Urte hasierarekin batera, badator urteko lehen kupela irekitzeko unea. Gaur, Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, XXX. Sagardo Berriaren Eguna ospatuko dute, Astigarragako Sagardoetxean. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola izango dira gaurko protagonistak, izan ere, 'Gure Sagardo Berria' oihukatuz irekiko dute 2023ko txotx denboraldia; aurretik sagarrondo bat landatuko dute. Sagardo berriaren dastaketa Astigarragako Alorrenea sagardotegian ospatuko dute, baina aurrena, txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatu dute Astigar taldeko dantzariak, eta ondoren, sagardogileek Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola soka dantzan parte hartzeraz gordinatuko dituzte, sagardo berria dastatzeko gonbitea luzatuz. Txotx irekiera zuzenean jarraitu nahi dutenentzat, streaming bidez emitituko dute Sagardoaren Lurraldearen Youtubeko kanalean, esteka honetan, hain justu: <https://labur.eus/S8jbp>.

Horrez gain, gaurko ekitaldiari doinu eta errimak jaritzeko, bi bertsolari arituko dira kantuan: Alaija Martin oiar-tzuarra eta Agin Laburu astigarrarra.

Garmendia eta Plazaola

Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola euskal agertokiaren nahiz telebistan erreferente diren bi aktore dira, umorea indargune



'Gure Sagardo Berria' oihukatuz irekiko dute txotx denboraldia, Garmendiak eta Plazaolak.

gutxiago. Aitziber 11 urterekin igotzen lehen aldiz agertoki batera, eta momentu hartan argi ikusi zuen bere grinetakoa bat antzez-lea izatea zela; oholta gainean gozatu egiten zuelako. Jonekin batera, aktore lanbidez gain, hainbat alderdi arakatzeko dituzte; biak aritu dira aurkezle, umorista nahiz gidolari lanetan.

«Iaz baino bertako sagar gutxiago»

Sagardo munduan aditu direnek jakinarazi dute iazkoa baino sagar uztat txikiagoa izan dela aurtengoa: «baina sagastiek izaera handiko sagarra eman dute. Berroaren eta lehortearen eraginez sagar kantitate handia erori da aurtur, eta sagarraren heldutasunean ere eragina izan du. Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko sagardoa ekoizteko, 249 sagargileren bi milioi kilo inguru sagar erabili da».

Hogeita bigarren urtez jarraian, irailaren hasieran kontrol bat egin zen Fruitel eta Sagardoaren Lurraldearen artean, Gipuzkoako sagasti batzuetako sagarren egoera ezagutzeko. Horretarako, Gipuzkoako zenbait

sagasti jarraitu eta 14 barietate kontrolatu ziren: Aritza, Errezi-la, Gezamina, Goikoetxe, Mantoni, Moko, Mozolua, Patzoluia, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria. **k**

XXX.SAGARDO BERRIAREN EGUNA 2023 ASTIGARRAGA

GAUR

12:00 Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2022ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren nahiz sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren kulturako gertaera garrantzitsuenak.

12:45 Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola aktoreek sagarrondo bat landatuko dute Sagardoetxeako sagastian.

13:30 Txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatu dute, Alorrenea sagardotegian, eta ondoren, sagardogileek Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola soka dantzan parte-hartzeraz gonbidatuko dituzte.

13:45 Alorrenea sagardotegian 'Gure Sagardo berria' oihu eginda, sagardo berria dastatuko dute euskal aktoreek. Eta honekin, 2023ko txotx denboraldiari hasiera emango zaio.



Literatur solasaldia, gaur, liburutegian

HERNANI KULTURA

Amala Garciak gidatuta, literatura solasaldia izango da, 19:00etatik aurrera, Hernaniko Udal Liburutegian. Najat el Hachmi idazlearen *El lunes nos querrán* liburua izango dute hizpide. Emakumeak beren bizitzaren protagonista izatearen garrantziari buruzko istorioa da.

Martxan da Olak auzo elkarteko kultura taldea

EREÑOTZU KULTURA TALDEA

Urte berriarekin batera, bueltan da Olak auzo elkarteko kultura taldea. 2023ko ekintzak antolatzeko asmoz, gaur egingo dute lehenengo bilera, arratsaldeko 19:00etan, auzo udaleko areto nagusian. Deialdia luzatu dute auzoko ekintza kulturalen antolakuntzan parte hartu nahi duten guztiei.

'Haurdunaldia eta erditzeondoa' tailerrean izena emateko epea, zabalik

HERNANI TAILERRA

Bi asteko tartea dago tailerretara apuntatu ahal izateko. Otsailaren 8an hasiko dira kurtsoak, eta ordurako, gutxienez, 12 aste edo erditu berri egon behar da izena eman ahal izateko. Interesa dutenentzat, apuntatzeko aukera ezberdinak daude: online, kulturartekoplazafeminista@hernani.eus helbidera idatzita, edo 943 33 70 17 telefonora deituta.